

AUTS ZARA...

ETA AUTS

BIURTUKO ZARA!

NORA NOA?

BA-NOA ERIOTZARA...

Laster, autseguaztenean, garizuman sartuko gara eta, kristiñauak garan azkero, arduratsu prestu bear doguz gure arimak Pazkoetarako. Ortze erakutsiko dogu zein sendoa dan gure kristautasunaren muiña.

Egia esan, gutariko geienak ez dogu ain errez aurkitzen garizumaren sentidua. Zer da edo zertarako da garizuma? Ala bearrez, ostera, gure kristautasunako beste gauza eder asko galdu doguzalako jazoten jaku ori. Kristiñau epel eta azalekoak garalako, eztakigu zer dan garizuma. Baiña, barriro diñotsuet: benetako kristiñauak izan gura badogu, derrigorrez asi bear dogu ortik, liturji bizitza oarrez sentitzen.

Garizuma zer da? Ezteguak galerazoten deuskuzan urtaldia? Berba bitan esateko, Garizuma Pazko aurreko urtealdi santua da, Pazko egunetarako gertuten gaituan-garaia. Pazko egunean, kristau egutegiko egunik andienean, Kristo kurtzean ildakoaren berbizkundera ospatzen dogu, au da, gure erlijioñoko misteriorik arrigarri ta maitagarriena. Eta garizuma ortarako da, gure arimak atonduteko Elizak aukeratuten dauan egun-taldea, Pazko misterioaren graziak ugari artu daiguzan.

Norbaitek uste izan leike "politegia" dala ori, "politegia" eta ederegia". Baiña, ezta olerki utsa, benetako errealdadea baiño. Zeuok be zergaitik joaten zaree ba Lourdes edo Fatimara? Kuriosidadez bakarrik, turista legez? Zergaitik sinisten dozue, barriz, leku orreek indar edo propiedade berezia daukela mirariak egiteko? Ba-dakizuelako Jaungoikoak aukeratu dabezala leku orreek Bere alguztidun indarra agertzeko. Beste orrenbeste, bada, esan bear dogu elizako garai edo urte-aldieri buruz: Jaungoikoak, Elizaren bitartez, aukeratu dauz garai edo aldi orreek bere graziak bereziro zabaltzeko kristiñau artean. Eta onetariko bat Garizuma dogu, graziaz betetako garai santua. Sifisutu daigun.

Aberritik kanpoan amaika urte egin dauzan senar bateri etxera biurtzeko ordua eldu jakola esaten badeutsoe zelako poza eta zelako pentsamentu goxo-goxoak erabiliko ez ete dauz bere buruan aurreko egun danetan? Jakiña! Orrezkero, ezta beste gogorik izango bere bizitzan: laster ikusiko dau bere emaztea, laster laztanduko dauz bere semetxoak, laster besarkatuko dauz bere guraso zarrak, laster, laster... ze poza ta zelako atsegin bete! Eta itxaroten dagoan bitartean, eguneroko zeregin gogorrenak be bigundu eta erreztu egingo jakoz, eta dana alaitu ta argituko jako barri ori jakin dauanetik. Esan leiteke, beraz, oraingotik darabillala etxera biurtzeko poza. Orixe da Garizuma be: Pazko egunetako graziaz santututa dagoan garaia edo egun-taldea.

Ainbeste grazi artu daikeguz garizuman, saiatuten bagara bear dan moduan bizitzen garai santu ori. Elizak era bi erakusten deuskuz ortarako: bata, pekatuen damua, eta bestea, penitentzia. Onelan egiten badogu, seguru asko Pazko egunean neurri-bako graziak artuko doguz zerutik.

# ANAITASUNA

X Urtea N.º 110  
 Dep. Legal SS. 1092-1959  
 Suplemento de la hoja  
 Anaitasuna de Guipúzcoa  
 ZEZEJILLA (2) 1964



# Mutillentzat eta neskantzat

## 1.—Beti gogoan euki bear dana.

Beti difiogu gauza bat: “Jaungoikoarengandik gatoz; Jaungoikoarengana goaz”.  
—Baiña, —esango deust zuetariko baten batek— beti zagoz, frailletxua, soñu bategaz! Ori esan naiz ezer ez esan, bardin bardin da. Ez uste izan gero, frailletxua, gazteok “ateoak” garanik! Ju!...”

—Baiña, gazte, barriro esango deustut: “Jaungoikoarengandik gatoz eta Jaungoikoarengana goaz”. Auxe dozu, naiz ta nai ez zure bizitzaren elburua, joera: auxe dogu zure bizitzaren ta nire bizitzaren eginkizun BAKARRA. Auxe ondo beteteko etorri giñan mundu onetara. Ta, gazte, ez pentsatu gero gure bizitzaren elburu BAKAR onetan il baiño iru, lau... urte arifñago mediatu bear dogunik bakarrik, ez ta ez! Zazpiurtetik gorako persona guzti guztiak pentsatu bear daben gauza da; pentsatu ta... —au batez be!— “egin”!

## 2.—Deporteak eta modak

Deporteak, modak, ez dira berez gauza txarrak, ez. Gaur eguneko sermolarriak ez dot uste deporteak eta modak gauza txarrak dirala esango dabenik. Mundu onetako gauzak, danak dira onak; ez dago gauza txarrak; gizona da gauzak txartuten dauzana; gizonaren txartasunetik, gizonaren malizititik dator gauzen txartasuna.

Deportea ez da gauza txarra. Modia ez da berez gauza txarra. Baiña mutillen bizitzan deporteak arrisku bat daroa: “deportea norberaren bizitzako elburutzat, joeratzat artu”. Ta, zoritxarrez, mutil gazte askori auxe gertatu jake: deportea azken-joeratzat artu; deportea euren bizitzaren gorengo maillan ipiñi; berba batean esanda: bidea, modua, azkentzat ipiñi. Deportea gauza ona da, baiña bere neurrian, diberziñu-moduan artzen danean, deskantzu-moduan artzen danean... Deporteak —eta deportearen legez beste diberziñu guztiak— deskantzu-moduan artu bear dira. Gizona ez da deportea azken-joeratzat artuteko jaio, gauza “aunditxoagotarako” baiño!...

Ta, bardin esan geinke “moda” kontuakaz be. Modak berez ez dira gauza txarrak; baiña, modak emakumearentzako arrisku aundi bat daroe: “modia bizitzaren elburutzat artutea”.

Neska, zure barruko gora-bera guztiak, zure biotzeko gora-berak, zure zorion-egarria, zure —parkatu, neska, “musturra” larregi sartuten badot— kuartuko komodan daukazuzen erropatxuak, zure moda-egarria... dana, lelengo puntuan esan doguna egiteko da: “Jaungoikoarengana joateko”. Kontuz ibilli, erropa larregi eroan eta Jaungoikoak ezagutu ez zaizan gero!... Nik ez deutzuk esango ondo jastea, arpegia polito ipintea, tako luzedun edo laburdun zapatak ipintea txarto dagoanik, ez; ori oso ondo dago. Edozeñeintzat da oba neska elegantia ikustea neska ganorebakoa baiño!... Baiña, —barriro esango deustut— ez dago ondo zure komadako abrigutxua, erropatxua azken-ezperantzat ipintea; nezka, ori baiño gauza aundiagotarako jaio ziñan!...

## SIERRA LEONATIK

(bostgarren orrialdetik dator)

Geyena, zerrutxua. Zimarroya, gitxiago ikusten da. Gure barkuak, iru egunean, amabi tonelada-edo atrapatu zituan. Gure konpañiako beste untzi biak-bere, total ondo ibilli zirean. Listo gengoan irurok portura sartzeko. Baiña aurtengo erreglamentuaren aginduz, ezin geintezkan irurok batera Freetownera joan. Batek, Abidjanera joan bear eban. Oraingoan, geure barkuari tokatu jakon ara joatea. Orduan ni “Perla de Orien-

te”-ra pasatu nintzan; eta zemendiaren (nobenbrearen) 19-an, Freetowneko portuan desenbarkatu giñean.

An ikusi nebana eta lenengo illeko gora-beerak, urrengo kronikan esango deustudaz.

Saluduak Itxas Apostoladuko laguneri, eta batezbere Bermeoko “Club de Mar Izaro”-ko adiskide ta laguntzailleeri.

Aita Imanol Berriatua.



# BASERRITARREN

Alaxe da bai; Joan da 1963. Urte barri onetara eldu ezkerro igaro dan urteari beapur bat egiteko. Datorren urteari barriz, girada bat bota bear deusagu azterketa itaunkera bat. Zelangoa izango ete iaku? Badakigu baserritarren biotz barrenean dagon itaunkera dala; ibilli be benetan gabiltz gorabera larrietan.

Pesimistak dana ikusiko dabe gaiztoago ta txarrago. Onentzako, kontribuzioak igon ta euri gitxi izango da; ta euria egiten badau be, larregi. Ez dago errazoirik onela pentsatzeko. Ez da ikusten orrelako kalteak etorri bear dabenik. Euria ta eguzkia nas-tean be sarritan izan dira.


Baifia naiz izan olakoak edo alakoak igarotako urteak, zeozer ikasi bearrean gagoz. Izan be okertasunak ikusteko garaia da

deuskuenak. Bata Jaungoikoarena ta bestea geurea.

Lenengo Jaungoikoa, zelan ez. Bera da gure Aita. Bere begia gure gainean dago beti. Iñork baiño obetoago dakiz baserriko gorabera guztiak. Badaki nola jaso ta nola lagundu baserriari. Trankilo ibilli gaitezcan, ba, Jaungoikoa gure Aita da-ta. Kanpora lotu egiten gaituezan preokupaziu ta ner-

## URTE

## BARRIA



auxe. Bestela ez gara gertutuko. Kontzien-tziko esamen gogorrari jarraitzea baiño gauza obeagorik ez dago jelkitzeko. Ta ordua da.

Baserritarrentzat ez da gauzarik tristee-na kilikolo ibiltea edo atzetik joatea; epel-kerian ezarri ta lotan gelditzea baiño. Beti da gauza ederra mendi batera izerdiz eta in-darrean igotzea. Trebetasun ederra auxe. Ta baserritarrak badaukoguz igaro bear doguzan mendiak ugari. Baserriko biurkeri ta goraberak dira. Baseritarrentzat urte barri bat problema bat da, jokatu bear dan karta bat. Derigor jokatu bear, ondo irabaztea gura izan ezkerro. Baserriko jokaera ez da kartetako lakoa; baserrian suerteak ez dauka zer-ikuski askorik.

Elementu bi izango dira irabazia ekarriko

bioak. Naiz etorri euria naiz izan legorra, egon templau beti, ondo dakigu zeifien eskuetan gagozanda.

Probidentzian fedea izango bagendu, ez genioke aizeeri ta euriari orrenbeste begi-ratuko. Itxi Aitaren eskuetan gure alegife-tan ez dagon guztia. Lar ondo daki zer egin.

Bakoitzaren alegifia da bigarren elemen-tua. Bear bearrekoa au be. Argi ta garbi ikusten dauan adimenak eta indar-naiean dabillen naimenak askotxo egin leike. Abili-dadeak gorabera guztieri irabazten deutse. Jantzi ba adimena egiagaz, bete naimena onginaiez eta asetu biotza bear-naiez.

Kristau legez jokatu bear dogu aurten baserritarrak. Betor lenengo gugana Kris-toren erreifua.





### TRABESIA GOGORRA

Betiko lez, Bermeon enbarkatu nintzan, urriaren 29-an, CRUZ DEL SUR izeneko untzian. Barku ederra, ta tripulaziño ederragoa. Danak mutil gazteak, fiñak, moduzkoak. Milla esker danori, emon eusten tratu guztiz onagaitik.

Zazpi bidar egin dot Afrikako joan-etorria; eta ez naiz gomutetan, azkenengo trabesia au baiño gogorragorik iñoiz euki dogunik. Canariaserarte beifiñak bein.

Bermeotik urtenda urrengo egunean, arribadan sartu bear izan genduan Kijoyera. Moillatik urre, bertako "Stella Maris" ikusteko erea euki neban. Etxe eder bat da. Muselekorik ederrrena. Mariño ta arraintzale asko joaten dira bertara. Egun aretan, arratsaldeko zazpiretan, meza bat izan zan "Stella Maris"en bertan, Bizkaitar makiñista baten arimeagaitik eta JUAN FERRER barkuko itoakaitik. Egun batzuk aurrerago, il egin eben makiñistea Hamburgoko portuan, eta JUAN FERRER barkua ondora joan zan Inglaterrako kostan.

Orreexek dira "Stella Maris" izeneko etxeak: mariñoen eta arraintzaleen onerako egifiñko zentruak. Bermeon-bere, "Stella Maris" eder bat euki gura dogu. Olako etxe bat derrigorrekoea da Bermeon, Euskalerriko portu guztiz inportantea da-ta. Baiña orretarako, Bermeotar guztien borondate ona ta kolaboraziñoa bear dira.

### PASADIZU BAT


Entzun orain Kijoyen jazo jakun-pasadizu bat. Bermeotarrak, euskeraz txarto egiten ei dabe. Orren gaiñean, asko diskutidu leiteke. Baiña, beifiñak bein, auxe da egia: Bermeotarrak beti egiten dabe euskeraz, erdereaz baiño maiteago dabe gure berbeta zaarra, eta beti dagoz euskerea defendictako prest. Kijoyetik Muselerako autobusean, euskeraz berba egiten etozan arraintzale batzuk. Portutik urre egozala, erderaz egiteko esan eutsen guztiz asarre Asturiano batek. Zer izan zan ba okasiñoa! Bermeotar danak ur-

ANAITASUNA'ren irakurle maiteok. Ostera-bere eskribietan de Freetownetik. Igazko lez, neure inpresioñoak adierazeko deutsuedaz bi atunetearen gaiñean. Kronika onetan eta urrengoetan, argi ta garbi duko deutsuet neure barruan sentietan dodana.

Orrek ez dau esan gura, nire eritxiak eta esanak beti zuzenak direanik. Ni ez naiz utseziña, eta ezin daike gauzen alderdi guztiak Iñori miñik ez egiteko asmoagaz, informaziño ona emoleko alegiñan dot emen Afrikan daroagun bizimoduaren gaiñean.

ten eutsoen aldarrika, euskeraz egiteko eskubide osoa eukela-ta. Alantxe jarraitu eben azkenengo paradararte. Bajatu zirean danak. Bermeotar bat pellikan asi zan Asturianoagaz, eta ukabilkada bategaz beaeren gaiñera bota eban. Nik ez diñot, ori ondo dagoanik. Baiña Euskaldun guztiak Bermeotarrak baizen euskaltzaleak balira, euskerreak ez leuke iñon arra bete-bere galduko.

Illaren 31-n urten genduan Kijoyetik. Eguraldi zantarrak ez eban oraindiño amore emon. Bermeoko ogetabost bat barku, gu baiño egun bat lenago urten ebenak, arribadan sartu zirean barriro Coruñan. Gure barkuak eta beste zazpik aurrera segidu genduan, atxerrez atxerrez Portugaleko kostatik, San Vicente kabura elduarte. An, errunbua ausi genduan eta zuzen abiatu giñean Canariaserantz. Eguraldi zantarrak ten egiten euskun oraindiño, eta itxasoa ez zan baretu ia ia Las Palmasera allegatuarte.





# SIERRA LEONATIK

Egia danik ez dakit baiña, goniometroaren pentzura bakarrik egotearren, kasik kasik Santa Cruz de Tenerifera sartu ei giñean, Las Palmasera joan bearrean. Urte baten, gertatu jakun olako errakuntza bat. Onek esan gura dau, gure kostapatroyak ez dagozala oraindiño ondo preparatuta, lempatroi titulua eukitea ez dala naikoa, eta ainbat ariñen euren ofizioa zearo ikasi bear dabela.

## FREETOWNERANTZ

Gero, ta gero-bere, allegatu gintzazan Las Palmasera. Ta urrengo egunean urten genduan Dakarrerazka. Arrezkero, eguraldi Habana euki genduan, aizea poparean. Itxasoa beti aolan balego, arraintzale bizibidea gauza ona izango litzake. Baiña sarriegi, osterantzekoa izaten da: aize berdea, marejadea, mareaziñoa, balantzadea, txaparradea, umo-

re txarra. Orixe da gure arraintzaleen patua. Orrezaz gaiñera, gau ta egun lan egin bear, deskantsu barik, jateko ordu fiju barik, ezelango komodutasun barik, beti untzi txiki baten sartuta. Diru asko irabazten ei dabe arraintzaleak. Egia izatekotan-bere, ondo irabazita dauke eta oraindiño geyago irabazi bear leukee.

## ITXASOAN DANAK LAGUNAK

Cabo Blanco-tik urre, Errusiako iru lan-tegi-barku aundi bisteratu genduzan, modernuak, popan elanbrea daukenak. Areek bai barkuak! Andrak eta guzti eroyezan barruan. Buelta bueltaka asi giñean barku baten inguruan, arrituta, turdiduta, zurtz eginda. Errusuak, eurak-bere, batzuk prismatikuakaz, adi adi egozan barandilletatik geuri begira. Albo albora urretu giñean, eta arrain sakua aletan ikusi genduan. Itxaso beteko sakua, ondo trinkatua, buzkantz aundi baten antzekoa. Gure barrukoen ustez, ogei bat tonelada bai eukiko zituan. Bilbao-koak giñeala esan geuntsen, Bermeo ezagutuko ez ebelakoan. Arraiña eskatu geuntsen, eta otzara bete berdel emon euskuen eurak. Itxasoa, arraintzale guztiak dira esku zabalak. Errusuak eurak-bere bai. Bearbada, errukitu egin zirean gugaz, lekutako itxasoetan gure untzi txikirriñoak ikusita.

Laugarren egunean eldu gintzazan Dakarrera. Iluntze nabarra zan. Aurten, ezin geintezkan Magdalaine islara portzebatan joan. Portzeba ederrak dagoz bertan, guztiz aundiak, ugariak. Dakarren ez ditu iñok jaten.

Portura sartu barik, karnadea egiten asi giñean badian. Antxe batu gintzazan, Kijoyetik batera urten genduan-zortzi enbarkaziñoak. Suberteak lagundu euskun danori. Lenengo etxadan, antxoba txikiagaz bete genduzan bibero guztiak. Eta beragaz barruan, Freetownerantz artu genduan errubua eta pozarren asi giñean atunetan.

Gure barkua, konpañian dator "Alexander Fleming" eta "Perla de Oriente"-gaz. Iurrok bat, onerako ta txarrerako. Aurten, enbarkaziño guztiak dotoz aolan: bi ta irunako grupuetan. Igaz baiño askoz obeto.

Freetownetik urre, arraiña jo genduan.

(Bigarren orrian bukatzenda)





# GURE ARTEAN

Asko idazten da gaur. Eta irakurri be, txikitatik oituratzen gara orain ainbat irakurtzen. Esan dan legez, 856.000 pta., joaten dira Bizkaian illero tebeu eta nobelatxuetan.

Eta irakurtzea gauza ongarria da. Gure erresponsabilidadea esnatu eraziten deusku, ona jaso eta txarra lagateko; aldeak eta urrintasunak urreratu egiten ditu; gaurko munduaren arpegia agertzen deusku; gizon guztien arteko batasun aundi batera garoaz; aberastu egiten gaitu gure barruan, pentsakera ugari asko gure aurrean ipiniaz.

Irakurtzearen alde okerrak aztu ezta be (batez be, kriteriu sanoak palta diranean, edo gai ergaletatik urtetan ez danean, edo azaletik bakarrik leitzen danean) ez dago dudarik, azkenean, gizadia jeikitzerako izango dala idazte-irakurtze zaletasun au.

Zer irakurtzen da gure artean? Gauz sakon gitxi bear bada. Baiña dana dala, gure artean arrerik onena lortutzen daben gaiak gaurko gizadiaren eta Elizaren ardurako gaiak dira; eta gure interesik beroena, benetako umanismoaren eta kristiñautasun biziago bateren agerlari eta aupalari diran idazlariak irabazten ditue.

Eta lenengo nabaritzen dana: iñoiz baiño geiago irakurtzen dira gaur Aita Santuen idazkiak. "Mater et Magistra" eta "Pacem in terris" izan dira nunbaiten zale au bixkortu dabenak. Ille baten eta liburutegi bakarrean "Mater et Magistra"-ren komentariu bateko 357 ale saldu ziran. Eta "Pacem in terris" geiago oraindik sartu da gure artean.

Beste aldetik, Michel Quoist eguneroan dabil. Bere idazte zuzen, sakon, argi eta biziak gure artean geiago eta geiago jasoten doaznak. "Oraciones para rezar por la calle" eta "Triunfo", bederatzigarren azalpenean doaz.

Erderatzen diran kanpotarren artean, Aita Y. Congar, izango da nunbaiten entzute aundienetakoa. Aita Congarren idazkietan, gaur rarotxu dan sakontasun eta seriotasuna aurkitzen da. Eta izan be, asko esan deusku bere "Jalones para una teología del laicado" eta "Falsas y verdaderas reformas en la Iglesia"-an.

Eta azkenik, asi da gure artean Carlos Foucauld-darraren mensaje barria sentitzen. Barria izan ezta, Ebangeluaren orri aztutako batzuek ekarri deuskuz begietara. Pobretasuna, bierra, otoitza, ixiltasuna, anaitasuna... Esagun dago, bizitz onen gure arteko egarria: aparteko arerra euki dau gure artean Rene Voillaume'k idazitako "En el corazón de las masas" orrek.

Eta au, besterik bage be, itxaropengarria da. "Zer irakurri, alakoa izan" egia bada, mundu zuzenago bat izateko usteari eutsi geinkio.



irakurtzen  
dana



Asko? Gitxi? Jaungoikoak zuengan itxi dau, guraso maiteak, numeroa fijatea, errazoikoa danean.

Gezurra eta egia da ori:

Elizak eztaun nai —ezta pentzau be— emaztea esklabu bat izatea bere seme geiegi eta txarto zainduen artean, eta askozaz gitxiago, ama ori nekatuta badago ainbeste seme emotearren. Eta ezta Eleizaren gogoa, senar batek, pittinen bat geiegi edan da gero, —bere griña domiñatu eziñik— emazteari semeak emotea.

Bañia, aldrebes, Eleiza ezta seme “bakarrekoen” partidarioa, gurasoak beste seme bat ekarten eztabenean euren egoismua eta molestia gitxiagotuteagaitik. Familia orrela gitxiagotutea —egoismu garbi bategaitik— ezta errazoikoa.

Bañia gurasoak motibo serioakaitik gelditu leikee semeak emotea.

Ara emen motibu batzuk:

#### 1) OSASUNEZKO PROBLEMAK AMARENTZAT

Ezin leike semerik barik gelditu urrifieko gaixotasun posible bategaitik bakarrik, urreko gaixotasun astun bategaitik baiño. Esate baterako: tuberkulosis, biotzeko estuasunen bat, giltzurriñetako neke bat, eta abar.

Ona izaten da seme bat ekarten danean beste bat segidun ez ekarte. Ama gogortu eta indartu arte itxoitea da onena. Ondo egoten da jaiotzetik jaiotzera zortzi edo amar illabete geldi egotea.

#### 2) UME JAIOBARRIARENTZAT OSASUNEZKO PROBLEMAK.

Ume normal-ez bat ekarrita gero, medikuak urrengo jaiotzak be orrela izango dirala badiño, gelditu egin bearko da semeak ekarten. Baiña mediku baten kontsejua bakarrik ezta naiko izango gauza ain astun ontan, erruan jausi leifeke-ta. Mediku askok, gaiñera, errezegi esaten dabe: “Ba-dakizu, andra ederra, seme geiago ez jatzu komeni” Askotan ezta txarto egoten beste mediku batengana joatea, batez be gauza txar bat errezeta lez emon baeban: anti-konzetikoak, onanismoa eta abar.

#### 3) ETXE ETA DIRU PROBLEMAK.

Izatez, obe da pobretxuago bizi seme bat geiago euki-tearren; baiña mixeria arte eztedilla eldu ifioiz be, bestela familiko bizitz normala ez litzake izango posible.

#### 4) EDUKAZIÑO PROBLEMAK.

Guraso patxadosuak eta neurri onekoak ondo eroan leikee seme askoko famili bat; baiña guraso orreek ner-biosuak eta indarbakoak badira, ezingo dabe ainbeste fam-ill euki; ondo etorriko jake gitxiagokin konformatea.

Bueno, baiña, zelan fijatu zuen kasu bakoitzean se-meen numeroa? Ezin leike aurrez-aurretik problema au arabaki. Baña gogoan artu auxe:

Jaiotz bakoitzaren ostean, eta emaztea barriro ondo jartzen danean, au da, sortzi edo amabost illabete ondoan, diskutitu, guraso maiteak, bion artean serioz eta ondo pixatuaz semea ekarteko edo ez ekarteko errazoiak.

Eta konfiantzezko abade bat badaukazue, bere boron-date azplan jarri, ba berak esango deutsue ia zuen erra-zoiak egoismorik dauken edo ez.

Berba batzen:

—Ez semerik al danik geien

—bizitzarako komeniente edukatu eta preparatu daikezuezan beste baiño.

Zenbat

seme?

asko?

gitxi?



# BIERGIÑA

JAINKOAREN  
JARRAITZAILLE  
ETA ORDEZKO

Itaunduko bageuntse ia zein dan bierraren iturria, erantzungo leuskigue geienak, nik uste: Bierra, Jainkoak gizonari pekatuagatik emondako kastigua da. Eta erantzun au baieztuteko Biblia ipiñiko leuskigue testigu. Eta egia da-izan.

Erantzun onen konsekuentziak argi ta garbi ikusi daikeguz beingoan. Jakiña, kastigua ta madarikaziñoa bada, beste erremediorek eztaukagulako-edo artu bear dogu bierra, penitentziz, gure pekatuen ordañez. Beste ezergaitik ez. Zelan, ba, ikusi alaitasuna bierrean? Gatx benetan!

Alan da guztiz be, ba-dauko Biblia-n arpegi au bierrak, egia esan. Beste gauza bat da arpegi au baño ezpadauko. Bierraren sasi-iturri au gure lenen-gurasoen pekatu-ostean agertu zan. Asieran, ostera, beste bat zan benetako iturria.

Biblia-k diñosku Jainkoak bier egin eba-la mundua egitean. Eta azkeno egunetan gizona egin ei eban. Eta gero, deskantsetan pare ei zan, kantseta-edo, antza.

Gizona, beraz, Jainkoaren bierra ta atsedanaren bien bitartean agertzen da, Jainkoaren bierraren jarraitzaille ta segitzaille lez. Au ondo erakusten iaku Libru Santuetan. San Pablo leidutea besterik ez.

Ikusi be: Jainkoak gizona egin ebanean artu eban deskantsua. Bai, atsedena artzen dau Jainkoak, gizonak Kreaziñoa jarraitu daian, bere izen eta bere menpean, noski.

Gizona, ba "Jainkoaren ordezeko ta jarraitzaille danez da biergiña" eta "biergiña dan ezkerro da Jainkoaren ordezeko eta jarraitzaillea".

Len be beste baten esan nebanez, geure kontura itxi eban Jainkoak mundu au osotutea. Berak asi eban lenengo bierra. Baña

amaitu barik itxi eban, ez-osotua lez. Eta guri gizonari agindu euskun bere ordezeko lez jarrai gengian berak asitako mundua.

Eta ori lortuteko bide bat baño eztago, besterik bapez. Bide bakar ori Bierra da. Len be esan genduan ori. Bierraren bitartez gara, ba, gu Jainkoaren ordezkari ta bere jarraitzailleak.

Ara, ba, nun dakerkigun gure eguneroko bier izerditsuaren iturri bizi ta argia. Jainko berberaren ordezeko eta jarraitzailleak gara! Poztu gaitezen, beraz!

**Torrealdy.**

